Txostena
Memoria

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

I. LANTIK, S.A. sozietatearen xedea

Lantik, S.A. 1981. urtean sortu zuen Bizkaiko Foru Aldundiak sozietate anonimo publikoaren formarekin eta ordutik egunera arte Bizkaiko Foru Aldundiaren barruko jarduera burutu du erakundeari informazioaren teknologietan espezializatuta dauden giza baliabideak zuzkituz, honako hauek egiteko aukera izan dezan:

B.F.A.k definitu duen Informazio Sistemen Politikaren plangintza egitea eta betearaztea.

Foru eta toki administrazioarentzat IKTetan oinarritutako konponbide integralak zuzkitzea.

Produktu, zerbitzu eta know how teknologiko lehiakorrak edukitzea, merkatu eta bezeroentzat ondo ezagunak eta dokumentatuak direnak.

Etorkizuneko Administrazio Publikoaren antolamendu, funtzionamendu eta garapenerako beharrizanen planteamenduan eta konponbidean aitzindaritza-jarrera aktiboa mantentzea.

Lantikek Bizkaiko Foru Aldundiari zuzkitu behar dizkion zerbitzuak erreferentziako Agindu Marko baten bidez gauzatzen dira. Agindu hori urtero eguneratzen da eta bertan zerbitzuen prestazioa arautzen da. Gaur egun honako hauek dira:

1. Konponbideak Bezeroa.

Konponbideak Bezeroa Zerbitzuaren ardura aplikazio informatikoen garapena eta mantendua da; ataza horretan, batez ere, honako hauek sartzen dira: irtenbide informatikoen azterketa eta analisia; hala denean, aplikazio informatikoak eskuratzeko laguntza; aplikazioen garapena; frogak egitea eta ekoizteko ezartzea eta mantentzea. Halaber, teknologia berritzaileen analisian eta instalazioan jarduten du eta horien gaineko zerbitzuen garapena eta ezarpena lantzen du.

I. Objeto de la Sociedad LANTIK, S.A.

Lantik, S.A. fue creada en el año 1981 por la Diputación Foral de Bizkaia bajo la forma de sociedad anónima pública, y lleva desarrollando desde entonces una actividad interna de la Diputación Foral de Bizkaia, dotando de recursos humanos especializados en tecnologías de la información, que le permitan, entre otros:

Planificar y Ejecutar la Política de Sistemas de Información definida por la DFB.

Proveer Soluciones integrales para la Administración Foral y Local, basadas en el uso de las TIC.

Disponer de productos, servicios y know how tecnológico competitivos, y bien conocidos y documentados para sus mercados y clientes.

Mantener una posición activa de liderazgo en el planteamiento y solución de las necesidades de organización, funcionamiento y desarrollo de la Administración Pública del Futuro.

Lantik presta sus servicios a la Diputación Foral de Bizkaia a través de la articulación de una Encomienda Marco de referencia, que se actualiza anualmente y en la que se regula la prestación de servicios, siendo en la actualidad:

1. Soluciones Cliente.

El servicio de Soluciones Cliente, se encarga del desarrollo y mantenimiento de aplicaciones Informáticas, que principalmente consiste en el estudio y análisis de soluciones informáticas, asistencia, en su caso, para la adquisición de aplicaciones informáticas, desarrollo de aplicaciones, realización de pruebas e implantación en producción y su mantenimiento. Aborda también el análisis e instalación de tecnologías innovadoras, así como el desarrollo e implantación de servicios sobre las mismas.

2. Ekipamendu informatikoa.

Ekipamendu informatikoen zuzkidura egitean datza (hardwarea eta softwarea) eta korporazioaren azpiegituretan produktu edo zerbitzu erabilgarri moduan homologatu ondoren, horien katalogazioari ekitean.

3. Informazio sistemaren ustiapena.

Hardware eta software egokian sistemen erabiltzaileak diren pertsonen ustiapen-sistemak antolatzean eta betearaztean datza; halaber, horien beharrizanetarako prestazio egokiak mantentzeko beharrezkoak diren jarduerak eta doikuntzak egitean.

Interneterako sarbidea: sare korporatiboko postu guztiei interneterako sarbidea ematea da.

Web Hostinga: Web teknologiako orrien eta aplikazioen ostatatzea da erabiltzaileek internetetik erabil ditzaten.

4 . Politika Teknologikoak garatzea.

Arlo honen barruan politika teknologikoak diseinatzen, egiten eta zabaltzen dira ostean politika horiek B.F.A.ren sistema informatikoetan aplikatzearen ondoreetarako. Hori guztia ezarrita dauden estrategia teknologikoetatik abiatuta egiten da, horiek betetzen direla eta egokiak direla zainduz; horiek ez ezik, egokiak diren uneetan, auditoretza teknologikoak eta erabilera iraunkorrari buruzkoak egiten dira.

5. Azpiegituren ezarpena eta mantenua.

Korporazioaren zerbitzarien azpiegitura ezartzean datza; halaber, baita sareen eta komunikazioen sistemak ezartzean ere, horien alderdi logikoan eta fisikoan.

2. Equipamiento informático.

Consiste en el suministro de equipamiento informático (hardware y software), así como en su catalogación tras su homologación como productos o servicios utilizables en la infraestructura corporativa.

3. Explotación del sistema de información.

Consiste en la organización y ejecución de los sistemas de explotación de la personas usuarias de los sistemas en el hardware y software adecuado, y en la realización de todas las actividades y ajustes necesarios para mantener unas prestaciones adecuadas a las necesidades de las mismas.

Acceso a internet: consiste en la provisión de acceso de los diferentes puestos de la red corporativa a internet.

Web Hosting: Consiste en el alojamiento de páginas y aplicaciones propias de tecnología Web para su uso por personas usuarias de/desde internet.

4 . Elaboración de Políticas Tecnológicas.

Consiste en el diseño, elaboración y divulgación de las políticas tecnológicas, que serán de aplicación en los sistemas informáticos de la DFB. Todo ello en base a las estrategias tecnológicas fijadas, velando por su cumplimiento e idoneidad, así como realizando auditorias tecnológicas y de uso permanente cuando corresponda.

5. Implantación y mantenimiento de Infraestructuras.

Consiste en la implantación de la infraestructura de los servidores corporativos, así como de los sistemas de redes y comunicaciones, en su vertiente lógica y física.

6. Kalitatea.

Korporazioaren zerbitzarien azpiegitura ezartzean datza; halaber, baita sareen eta komunikazioen sistemak ezartzean ere, horien alderdi logikoan eta fisikoan.

7. Laguntza teknikoa (Lanpostua).

Pertsona erabiltzaileei instalatutako ekipamendu ofimatikoaren funtzionamendu zuzena bermatzean datza.

8. Laguntza Teknikoa (ELZ-CAU).

Pertsona erabiltzaileei kanal askotako (telefonoa, posta elektronikoa eta beste bide telematiko batzuk) laguntza ez presentziala emateko zerbitzua da, lanpostuko erreminten, zerbitzuen edo sistema informatiko guztien erabilerari dagokionez esparru tekniko-informatikoan sor daitezkeen era guztietako gorabeherak ebazteko.

9. Aholkularitza.

Laguntza era objektiboan eta independentean eskaintzean datza, zertarako-eta negozioaren arloko ustezko arazo eta beharrizan guztiak agertarazteko, horiek guztiak aztertzeko, arazo horietarako konponbideak gomendatzeko eta irtenbideen aplikazioa zuzentzeko.

10. Bezeroen fidelizazioa eta laguntza.

Zerbitzu honetan bezeroekiko merkataritzako funtzioa betetzera bideratuta dauden jardueren betearazpena lantzen da, horien beharrizanak identifikatuz, beharrezkoak diren zerbitzu guztien zuzkidura Lantiken koordinatuz eta eskaintzen diren zerbitzu guztietan bezeroei eta erabiltzaileei laguntza ematea bermatuz. Aldi berean, B.F.A.n teknologiari buruzko aurrekontuen kontrola eta jarraipena egiten da.

6. Calidad

Consiste en la implantación de la infraestructura de los servidores corporativos, así como de los sistemas de redes y comunicaciones, en su vertiente lógica y física.

7. Asistencia Técnica (Puesto de Trabajo).

Consiste en asegurar el correcto funcionamiento del equipamiento ofimático instalado a las personas usuarias.

8. Asistencia Técnica (CAU).

Se trata de un servicio de asistencia no presencial y multicanal (Teléfono, correo electrónico u otros medios telemáticos) a personas usuarias, para la resolución de cualquier tipo de incidencia dentro del ámbito técnico-informático, que se produzca en la utilización de las herramientas del puesto de trabajo, servicios o uso de los diferentes sistemas informáticos.

9. Consultoría.

Consiste en prestar asistencia de manera objetiva e independiente, para poner al descubierto los posibles problemas y necesidades de negocio, analizarlos, recomendar soluciones a esos problemas y dirigir la aplicación de soluciones.

10. Fidelización y asistencia a los/las clientes.

Se encarga la ejecución de actividades encaminadas a cubrir una función comercial de relación con los/las clientes, identificando sus necesidades, coordinando en Lantik la provisión del conjunto de servicios y garantizando la prestación de apoyo a los/las los/las clientes y personas usuarias en todos los servicios ofertados. Asimismo, se encarga del control y seguimiento de los presupuestos relativos a tecnología en DFB.

11. Prestakuntza

Mikroinformatikako ikastaroak ematean datza; prestakuntza-ekintza hauek foru sail guztiek egiten duten beharrizanen diagnostikoaren emaitza dira. Ikastaro hauek on-line izan daitezke, jardunaldi presentzialarekin, edo presentzialak Lantik, S.A.ren ikasgeletan edo bezeroen lokaletan.

12. Ziurtagiri eta Sinadura Elektronikoa.

Tipologia askotako ziurtagiri elektronikoen jaulkipenean datza.

13. Segurtasun Logikoa.

B.F.A.ren sistema informatiketan aplikagarriak izango diren segurtasun politiken diseinuan, zabalkuntzan eta ezarpenean datza; halaber, arriskua onartzeko moduko maila batera gutxitzeko landu beharko den euskarria lantzen du.

14. Beste zerbitzu batzuk.

Lantik, S.A. sozietatearen jardueraren esparrua bere zerbitzuak eta produktuak eskatzen dituen foru administrazioa eta toki administrazioa da.

Lantik, S.A., sozietate publikoa den neurrian, Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Sailari atxikita dago eta saileko titularra Administrazio Kontseiluaren lehendakaria da. Kontseiluan Bizkaiko Foru Aldundiaren organigraman dauden foru sail guztietako eskuordeak daude.

II. LANTIK S.A.ren jardueraren edukiak.

Lantiken jarduerarik behinena, kudeaketa-aginduan definituta dauden eta arestian zehaztu diren Zerbitzuaren Mailaren Erabakiak betez, B.F.A.ri ematen dizkion Informazioaren Teknologiako Zerbitzu guztiak operatibo eta aldez ezarritako kalitatearekin mantentzea da.

11. Formación.

Consiste en la impartición de cursos de microinformática, que son las acciones formativas derivadas del diagnóstico de necesidades realizado por los distintos departamentos forales. Estos cursos podrán ser, on-line con jornada presencial, presenciales en las aulas de Lantik, S.A. o personalizados en los locales de los/las clientes.

12. Certificación y Firma electrónica.

Consiste en la emisión de certificados electrónicos de diversas tipologías.

13. Seguridad Lógica

Consiste en el diseño, elaboración divulgación e implantación de las políticas de Seguridad, que serán de aplicación en los sistemas informáticos de la D.F.B., así como el soporte que se deba a acometer paera minimizar el riesgo a niveles aceptables.

14. Otros Servicios.

El ámbito de la actividad de Lantik, S.A. abarca la Administración Foral y la Administración Local que requieren sus servicios y productos.

Lantik, S.A., como sociedad pública, se encuentra adscrita al Departamento de Administración Pública y Relaciones Institucionales cuyo titular es la Presidenta del Consejo de Administración compuesto por representantes de cada uno de los Departamentos Forales existentes en el organigrama de la Diputación Foral de Bizkaia.

II. Contenido de la actividad de LANTIK S.A.

La actividad principal de Lantik es la de mantener operativos y con la calidad prevista los servicios de Tecnologías de la Información prestados a la DFB, cumpliendo los Acuerdos de Nivel de Servicio definidos en la encomienda de gestión y detallados anteriormente.

Horretarako kasu askotan ikusgarriak ez diren azpiegiturak, pertsonak eta bitartekoak daude foru sistema eta zerbitzu teknologikoak operatibo mantentzeko aukera ematen dutenak 24x7x365 araubidean, era seguruan eta errepikakorrean B.F.A.ren negozioaren jarraikortasuna bermatzearen ondoreetarako.

Para ello, existen infraestructuras, personas y medios que no son visibles en muchas ocasiones, pero que permiten mantener operativos los sistemas y servicios tecnológicos forales 24x7x365, de forma segura y redundada, de cara a garantizar la continudad del negocio de DFB.

Halaber, erabat oinarrizkoak eta beharrezkoak diren elementuak zuzkitzen, koordinatzen eta mantentzen dira, besteak beste B.F.A.ren komunikazioak, zerbitzariak eta erabiltzaileen lanpostuak; horiei, aldi berean, arreta eta euskarria eskaintzen zaie arreta hori eskaintzeko kanal guztiak erabiliz eta, behar den kasuetan, arloko prestakuntza bideratuz.

Además se proveen, coordinan y mantienen elementos básicos y totalmente necesarios, como las comunicaciones, los servidores y los puestos de trabajo de las personas usuarias de DFB, a las que también se da atención y soporte a través de diferentes canales de atención, facilitando también formación en caso que así se requiera.

Hori guztia helduta dagoen eta egonkorra den kalitatea kudeatzeko sistema baten bidez zuzentzen da. Sistemak 7 ISO ziurtagiri ditu eta aukera eman du Lantik S.A. Segurtasuneko Nazio Eskeman (ENS) ziurtatzeko.

Todo ello, está gobernado por un sistema de gestión de calidad maduro y estable, que cuenta con 7 certificaciones ISO y que ha permitido certificar a Lantik S.A. en el Esquema Nacional de Seguridad (ENS).

III. LANTIK S.A.ren lehentasunezko proiektuak eta jarduerak.

Azpiegitura teknologikoak eta zerbitzu korporatiboak zuzkitu ez ezik, Lantik S.A.k Bizkaiko Foru Aldundiak zuzentzen dituen informazioaren teknologiekin lotuta dauden proiektuen eta estrategien lorpenean hartzen du parte.

2019. urteari dagokionez proiekturik garrantzitsuenak honako hauek dira:

III. Proyectos y Actividades Prioritarias de LANTIK S.A.

Además de proveer infraestructuras tecnológicas y servicios corporativos, Lantik S.A. participa en la consecución de proyectos y estrategias relacionadas con las tecnologías de la información que la Diputación Foral de Bizkaia lidera.

De cara a 2019, los proyectos más relevantes son los siguientes:

Ahaldun Nagusiaren Kabinetea

Proiektua: Ekitaldiak.

Proiektu honen helburua Ahaldun Nagusiaren ekitaldien kudeaketarako erreminta eboluzionatzea da, zertarako-eta urtero detektatzen diren igorpenen kontrola, diseinuaren hobekuntzak eta erabilgarritasuna lantzeko.

Gabinete del Diputado General

Proyecto: Ekitaldiak

El objetivo de este proyecto es evolucionar la herramienta de Gestión de Actos del Diputado general para el control de envíos, mejoras de diseño y usabilidad que se detectan anualmente.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Batzar Nagusietako kontsulten kudeaketa.

Proiektu honen helburua Bizkaiko Batzar Nagusiengandik jasotzen diren eta Bizkaiko Foru Aldundiaren erantzuna edo jarduketa eskatzen duten agirien igorpena, jasotzea eta kudeaketa bideratuko duen tramitazio-erreminta bat garatzea da.

Proiektua: Bizkaia.eus

2017an ezarritako diseinu berrian Bizkaiaren webgunearen edukien integrazioan aurrera egitea eta funtzionaltasun berriak garatzea (bilatzailea, SEO hobekuntzak eta abar)

Proiektu: Partaidetza-prozesuak

Proiektu honekin Bizkaiko Foru Aldundiak garatu dituen parte-hartze prozesuan eskainitako informazioa zabaldu nahi da

Proyecto: Gestión de consultas de Juntas Generales

El objetivo de este proyecto es desarrollar una herramienta de tramitación que permita el envío, recepción y gestión de los documentos que se reciben desde las Juntas generales de Bizkaia, y requieren de una respuesta o actuación por parte de la Diputación Foral de Bizkaia.

Proyecto: Bizkaia.eus

Avanzar en la integración de los contenidos de la web de Bizkaia en el nuevo diseño implantado en 2017, así como desarrollo de nuevas funcionalidades (buscador, mejoras SEO, etc.)

Proyecto: Procesos de participación

Con este proyecto se pretende ampliar la información ofrecida sobre los procesos de participación desarrollados por la Diputación Foral de Bizkaia

Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Saila.

Proiektua: Atarileku.

Enplegatuaren ataria 2017. urtearen amaieran migratu zen eta 2018an eboluzionatu egin da. 2019ko helburua funtzionaltasun berriak sartzea da, horien artean foroak, eta sailen barruko intranetak mantentzea.

Proiektua: Lan-osasuna.

Helburua medikuntzako azterketetan erabiltzen diren erremintak eta lanpostuaren arriskuen ebaluazioa Lan Osasunerako Zerbitzuak identifikatu dituen kudeaketa-beharrizanei egokitzea da.

Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales

Proyecto: Atarileku

El portal del empleado ha sido migrado a finales de 2017 y evolucionado en 2018. El objetivo de 2019 es incluir nuevas funcionalidades , entre ellas foros, y evolución del mantenimiento de las intranets departamentales.

Proyecto: Salud Laboral

El objetivo es adecuar las herramientas que se utilizan para los reconocimientos médicos y la evaluación de los riesgos del puesto de trabajo a las necesidades de gestión identificadas por el Servicio de salud laboral.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Kanpo-indarkeria.

Proiektu honen helburua B.F.A.ko funtzionarioek sufritzen dituzten arazoei buruzko espedienteen tramitazioa bideratzea da.

Proyecto: Violencia externa

Tiene por objeto posibilitar la tramitación de expedientes sobre agresiones que sufren los funcionarios de la DFB.

Proiektua: Pertsonalaren kudeaketa.

Proiektuaren xedea ordainketari, lan harremanei, ordutegiaren kontrolari eta antolamenduari eta lotuta dauden aplikazio guztiak urtean zehar arauetan eta/edo hitzarmenetan egon diren arauen aldaketei egokitzea da.

Proyecto: Gestión de personal

El proyecto tiene por objeto adecuar todas las aplicaciones de régimen retributivo , relaciones laborales, control horario y organización, a las diferentes modificaciones normativas y/o convenios que surgen en el transcuros del año.

Proiektua: Udalnet -Argia

Udalnet-eko prozeduren egoitza elektronikoaren migrazio progresiboa B.F.A.k Bizkaiko udalei eskaintzen dizkien zerbitzuei dagokienez. Zerbitzu horiek ARGIA deritzon barruko tramitazio-erremintarekin kudeatzen dira.

Proyecto: Udalnet -Argia

Migración progresiva a la sede electrónica de los procedimientos de Udalnet, sobre servicios que ofrece la DFB a los ayuntamientos de Bizkaia, que son tramitados con la herramienta de tramitación interna ARGIA.

Proiektua: Udal Kudeaketa.

Proiektuak informazio-zentro bat eraikitzea eskatzen du. Zentro horrek honako hauek eskuratzea bideratuko du: udalen aurrekontuen datuak; adierazle ekonomiko-finantzarioak; zerbitzuen kostuen kudeaketa;... toki erakundeen (udalak, partzuergoak eta mankomunitateak) inguruan.

Proyecto: Gestión Municipal

Este proyecto engloba la construcción de un un centro de información que permita la obtención de datos presupuestarios municipales, indicadores económicos financieros, gestión de costes de servicios...en el entorno de las entidades locales (ayuntamientos, consorcios y mancomunidades).

Proiektua: Kontratazio-espedienteen kudeatzailea

Kontratazio-espedienteen kudeatzaile gisa eskuraturiko produktua egokitzea da xedea, behar diren baliabide korporatibo guztiekin uztartzeko, baita beharrezkoak izan litezkeen kanpoko garapenak ere, hala nola Euskadiko Kontratazio Ataria.

Proyecto: Gestor de expedientes de contratación

El objetivo es adecuar el producto adquirido como gestor de expedientes de contratación para integrarse con todas las herramientas corporativas que se precisen, así como los desarrollos externos que puedan ser necesarios, como por ejemplo el Portal de Contratación de Euskadi.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Flotak kudeatzeko zerbitzua

Flotak kudeatzeko zerbitzuaren kontratazioa, Bizkaiko Foru Aldundiko ibilgailuen parke ibiltariaren erabilerari buruzko informazio gehiago emateko.

Proiektua: Bizkaiko Aldizkari Ofiziala

Aldizkaria egunero argitaratzeko erraztasunak dakartzaten baliabideak ematea Foru Inprimategiari: iragarkiak bidaltzeko intranet, iragarkiak bidaltzeko extranet, harpidetze-baliabideak, hobekuntza funtzionalak...

Proiektua: Enplegu Eskaintza Publikoa

Enplegu Eskaintza Publikoko espedienteen kudeaketa modernizatzea tresna korporatiboak erabiliz hala nola Egoitza, Jakinarazpenak, eta abar.

Modernizazio, Gobernamendu On eta Gardentasunerako Kabinetea.

Proiektua: Gobernu Kontseiluak.

Ezarri da 2019. urtean abian jarriko dela paperezko espediente fisikoa ezabatzeko eta Gobernu Kontseiluetan onesten diren agirien sinadura elektronikoa garatzeko aukera emango duen Gobernu Kontseiluen kudeaketaren erreminta.

Proiektua: Izaera orokorreko xedapenak.

2018an izaera orokorreko xedapenen tramitazio elektronikoa ezarri ondoren, aurreikuspenen arabera erreminta hori eboluzionatuko da ezarri ondoren antzeman diren hobekuntza asko aplikatzeko.

Proyecto: Servicio de gestión de flotas

Contratación de un servicio de gestión de flotas que aporte una mayor información sobre el uso que se realiza del parque móvil de vehículos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Proyecto: Boletín Oficial de Bizkaia

Dotar a la Imprenta Foral de herramientas que permitan facilitar la publicación diaria del boletín: intranet de envío de anuncios, extranet de envío de anuncios, herramientas de suscripción, mejoras funcionales,…

Proyecto: Oferta Pública de Empleo

Modernización de la gestión de los expedientes de la Oferta Pública de Empleo haciendo uso de herramientas corporativas como Sede, Notificaciones, etc.

Gabinete de Modernización, Buen Gobierno y Transparencia

Proyecto: Consejos de gobierno

En el año 2019 está previta la puesta en marcha de la herraminta de gestión de consejos de gobierno que permitirá la eliminación del expediente físico en papel y la firma electrónica de los documentos que se aprueban en consejo de Gobierno.

Proyecto: Disposiciones de caracter General

Tras la implantación en 2018 de la tramitación electrónica de las Disposiciones de Caracter General, está previsto evolucionar dicha herramienta para dar cabida a múltiples mejoras surgidas tras su implantación.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Sinadura-ontzia.

2018an ezarri zen proiektuak etenik gabeko bilakaerak eskatzen ditu hala sinadura elektronikoen etekinetan nola Bizkaiko Foru Aldundiaren aplikatibo askoko sinaduren sistema orokorraren erabileran hobetzearen ondoreetarako.

Proyecto: Portafirmas

El proyecto implantado en 2018, requiere de continuas evoluciones para mejorar tanto en rendimientos de forma electrónica como en visualización y uso del sistema global de firma desde los múltiples aplicativos de la Diputación Foral de Bizkaia.

Proiektua: Opendata.

B.F.A.ren datu irekien proiektuak, 2018an ezarri denak, artean betetzeke dauka Bizkaiko Foru Aldundiak bere Opendata atarian eskuragarri jartzen duen informazioaren bolumena gehitzeko datu-multzo berrien apurka-apurkako inkorporazioa (datasets); halaber, herritarrek erabiltzea errazteko funtzionaltasun berriak garatu behar dira.

Proyecto: Opendata

El proyecto de datos abiertos de DFB, implantado en 2018, tiene pendiente la incorporación gradual de nuevos conjuntos de datos (datasets) que vayan aumentando el volumen de información que la Diputación Foral de Bizkaia pone a disposición en su portal de Opendata, así como de nuevas funcionalidades que faciliten su uso a la ciudadanía.

Proiektua: Herritarrek 360º ikusmena edukitzea.

Proiektu honen helburua B.F.A.ren eta herritarren beharrizanetan eta elkarren arteko harremanetan 360 graduko ikusmena eskuratzeko aukera emango duten erremintak edukitzea da kanal guztietan arreta zerbitzu hobea eta eragingarria eskaintzearen ondoreetarako.

Proyecto: Visión 360º de la ciudadanía.

El proyecto consiste en disponer de herramientas que permitan disponer de una visión 360 grados de las necesidades e interrelaciones de la ciudadania con la DFB, para dar el mejor y eficiente servicio de atencion, de forma omnicanal.

Proiektua: Herritarrenganako arretaren aginte-koadroa.

Proiektu honen bidez aginte-koadro integrala sortu da; horretarako informazio zentralizatua erabiltzen da bezeroekiko erlazioen kudeaketa-sistema (CRM) posible baten. Sistemak aukera emango du eman den zerbitzuaren monitorizazio aktiboa egiteko eta berrikuntza, kalitate eta herritarren asetasunari buruzko prozesuak detektatzeko adierazleak edukiko ditu.

Proyecto: Cuadro de mando de atención ciudadana

El proyecto consiste en la creación de un cuadro de mando integral, haciendo uso de la información centralizada en un posiblel sistema de gestión de relación con los clientes(CRM), que permitirá la monitorizacion activa del servicio prestado y dispondrá de incidadores para la deteccion de procesos de innovacion, calidad y satisfaccion de la ciudadanía.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Herritarren Arretarako 048 APP.

Herritarrak eskuragarri dauden informaziora eta zerbitzuetara iristeko aukera emango duen app bat egongo da, B.F.A.ren eta pertsona erabiltzaileen arteko harremanak errazteko balio erantsiko aukerak emanda.

Proyecto: APP 048 de Atencion Ciudadana

Realización de una app que permitirá a la ciudadanía el acceso a la información y servicios disponibles, aportado opciones de valor añadido para facilitar la relación entre las personas ciudadanas y DFB.

Proiektua: B.F.A.n aurrez hitzordua eskatzeko eta ilarak kudeatzeko sistema bat ezartzea.

Helburua herritarrek B.F.A.ren bulego batera era presentzialean etortzen direnean itxaroten egin behar duten denbora murriztea eta ematen zaizkien zerbitzuak hobetzea da; halaber, apurka-apurka aurrez hitzordua adosteko eta ilarak saihesteko sistema, gaur egun dagoeneko Bilbo, Durango eta Bermeon erabiltzen dena.

Proyecto: Implantación de un sistema de cita previa y gestión de colas en DFB

Con el objetivo de reducir los tiempos de espera de la ciudadania cuando acuden presencialmente a una oficina de DFB, y mejorar los servicios prestados, implantación progresiva del sistema de cita previa y de gestión de colas ya implantado en Bilbao, Durango y Bermeo.

Proiektua: Herritarrekiko Harremanen Datu Basearen aplikazioaren eboluzioa.

2018an Herritarrekiko Harremanen Datu Basearen aplikazioaren lehen fasea burutu ondoren (horren bidez herritarrek emandako informazioa eskuratu ahal izango da, informazio hori erabiltzeko baimenarekin eta izan ditzakeen erabilerekin), horren apurka-apurkako ezarpenari ekingo zaio eta, halaber, aplikazioaren bigarren fasea garatuko da.

Proyecto: Evolución de la aplicación de Base de Datos de Relaciones Ciudadanas

Tras la realización en 2018 de una primera fase de la aplicacion de Base de Datos de Relaciones Ciudadanas en la que se dispondrá de la información aportada por las personas ciudadanas, con el consentimiento y los usos que se le pueden dar, se procederá a su implantación progresiva, así como al desarrollo de la segunda fase de la aplicación.

Proiektua: Bulego birtualak Egoitza Elektronikora migratzea.

Era gradualean eta integratuan bulego birtualak B.F.A.ren Egoitza Elektronikoan batzeko proiektuarekin jarraituko da.

Proyecto: Migración de las oficinas virtuales a la Sede Electrónica

Continuar con la unificación de las oficinas virtuales en la Sede electrónica de DBF de forma progresiva e integrada.

Proiektua: Egoitza Elektronikoa eguneratzea.

Proiektu honen helburua B.F.A.ren Egoitza Elektronikoaren erabilera hobetzea eta bere segmentazioa sustatzea da, aldi berean erakunde askok erabiltzea bideratuta.

Proyecto: Actualización de la Sede Electrónica

Proyecto que tiene como objeto mejorar la utilización y fomentar la segmentación de la sede electrónica de la DFB, posibilitando además el uso multientidad.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Herritarren informazioaren ezagutzaren kudeatzailea.

Herritarrekiko harremanen kudeatzailearekin lotuta kanpainen eta informazio garrantzitsuaren eta herritarrek eskatzen duten informazioaren informazio zentralizatuaren sistema bat garatuko da B.F.A.ren pertsonalaren eta herritarren artean arreta eskaintzeko dauden kanal korporatibo guztietan erabiltzeko, betiere informazio sendoa eta eguneratua edukita.

Proyecto: Gestor del conocimiento de información ciudadana

Relacionado con el gestor de relaciones con la ciudadanía, se desarrollará un sistema de información centralizado de campañas e información relevante y demandada por la ciudadanía, para su uso corporativo en todos los canales de atención entre persopnal de DFB y ciudadanía, teniendo información consistente y actualizada.

Proiektua: Bizkaiko Agiritegi Elektronikoa.

Bizkaiko Agiritegi Elektronikoaren sorkuntza; Agiritegiak administrazioaren jarduketetan erabiltzen diren agiri guztiak biltegiratzeko aukera emango du, formatu elektroniko baten eta B.F.A.ren Agiritegi Fisikoarekin koordinatuta.

Proyecto: Archivo Electrónico de Bizkaia

Creación del Archivo Electronico de Bizkaia, que permite almacenar todos los documentos utilizados en las actuaciones administrativas en un formato electrónico y coordinado con el Archivo Físico de DFB..

Proiektua: Funtzionario Gaitua.

Funtzionario Gaituaren figura sortzea eta ezartzea. Horri esker B.F.A.ko funtzionarioek herritarren izenean esku hartu ahal izango dute, baita identifikazioa edo sinadura eskatzen duten prozeduretan ere.

Proyecto: Funcionario Habilitado

Creación e implantación de la figura de funcionario habilitado que permitirá a los funcionarios de la DFB actuar en nombre de la ciudadanía, incluso en procedimientos que requieran identificación o firma.

Proiektua: Interoperabilitate kanal berriak.

Interoperabilitate kanal berriak ezartzea beste administrazio batzuekin, eta baita gainerako sektore publikoarekin/pribatuarekin ere, egiten diren informazio truke guztiei trazabilitatea zuzkitu ahal izateko, herritarrek dokumentazioa aurkeztu beharra izan ez dezaten.

Proyecto: Nuevos canales de Interoperabilidad

Implantación de nuevos canales de interoperabilidad, que permitan dotar de trazabilidad a todos los intercambios de datos que se realicen con otras administraciones, así como con el resto del sector público/privado, para evitar la presentación de documentación a la ciudadanía.

Proiektua: Sarreren Kudeatzailea.

Kanal askotako sarreren apurka-apurkako ezarpenarekin eta eboluzioarekin jarraitzea. Kudeatzaileak aukera emango du, papera erabili beharrean, B.F.A.k emango duen dokumentazio guztia baliabide digitaletan biltegiratzeko eta, aldi berean, hobetu egingo da dokumentazio horren tratamenduaren denbora eta kudeaketa.

Proyecto: Gestor de Entradas

Continuar con la implantación progresiva y evolución del entradas multicanal, que permitirá que toda la documentación aportada a DFB, se almacene en medios digitales, evitando el uso del papel, mejorando además el tiempo de tratamiento y gestión de la misma.

MERKATARITZAKO FORU SOZIETATEAK / *SOCIEDADES MERCANTILES FORALES*

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Erraztuz.

Administrazioaren atazak erratzeko eta prozedurak birdefinitzeko lanen ostean zabalkuntza teknologiko progresiboa burutuko da BAT inguruaren barruan sortutako osagai berrerabilgarri berriak erabiliz.

Proiektua: Irteera Erregistroa (CCM).

Gaur egun baliabide eta bitarteko desberdinak erabiliz erabiltzen den igorketen sistemak bilakaera teknologikoa eta prozesuak erraztea eskatzen du, erabili behar diren informazioaren bolumenak itzelak direlako eta, zati baten, maila teknologikoan zaharkituta daudelako. Herritarrekiko komunikazioak kudeatzeko erreminta bat ezarriko da (CCM), barruko prozesua erraztuko duena eta baita, aldi berean, komunikazioen kalitatea ere.

Proiektua: Intranet eta BAT aginte-koadroa.

Barruko komunikazio kanala, BAT (Bizkaiko Azpiegitura Teknologikoa) elementuen prestakuntzakoa eta mantentzekoa, BATeko osagai berrerabilgarrien eboluzioetan komunikazioa hobetzeko dena; halaber, erabilerari eta eboluzio berriei buruzko informazioa eskuratzeko balio du.

Proiektua: Bizkaia Analytics.

Datuetan oinarritzen den kudeaketaren orientazioarekin jarraitzea; hori erabakiak hartzea errazten duten datuen analisirako erreminten eta aginte-koadroen erabileraren bidez egiten da. Proiekturako definituko den estrategiaren araberako lan-esparru berriak sortuko dira eta informazio berria inkorporatuko da.

Proyecto: Erraztuz

Tras las labores de simplificación administrativa y redefinición de procedimientos, se trata de realizar el despliegue tecnólogico progresivo haciendo uso de los nuevos componentes reutilizables generados dento del entorno BAT

Proyecto: Registro de Salida (CCM)

El sistema actual de envío de notificaciones a través de diferentes medios requiere de una evolución tecnológica y de una simplificación en sus procesos, debido a los volúmenes de información manejados y en parte, a su obsolescencia tecnológica. Se implantará una herramienta de gestión de comunicaciones con la ciudadanía (CCM) que facilite el proceso interno, y también la calidad de las comunicaciones.

Proyecto: Intranet y cuadro de mando BAT

Canal de comunicación interna, formativo y de mantenimiento de los elementos BAT (Bizkaiko Azpiegitua Teknologikoa), para mejora de la comunicación en las evoluciones de los componentes reutilizables BAT, así como para disponer de la información de uso y nuevas evoluciones.

Proyecto: Bizkaia Analytics

Continuación de la orientación a la gestión basada en datos, mediante el uso de herramientas de analítica de datos y cuadros de mando, que faciliten la toma de decisiones. Se crearán nuevos espacios de trabajo y se incorporará nueva información en base a la estrategia que se defina para el proyecto.

Lantik, S.A.
Lantik, S.A.

Proiektua: Integrazio-erreminta.

2018an herritarrek egoitza elektronikoaren bidez aurkezten duten informazioaren kudeaketa errazten duen erreminta ezarri da. Derrigorrezkoa da sistema eboluzionatzea funtzionaltasun berriak emateko eta B.F.A.ren barruan erabilera orokorra izatea bideratzeko.

Proyecto: Herramienta de integración

Durante 2018 se implanta una herramienta que facilita la gestión de la información presentada por la ciudadanía a través de la sede electrónica. Se debe evolucionar el sistema, para aportar nuevas funcionalidades y permitir su uso generalizado internamente en DFB.

Proiektua: Interoperabilitate zerbitzu berria

Interoperabilitate zerbitzu berriak sartzea 2018an abian jarri den plataformari, administrazioen eta erakunde publiko/pribatuen artean datuak konpartitzearen ondoreetarako.

Proyecto: Nuevos servicios de Interoperabilidad

Incorporar nuevos servicios de interoperabilidad a la plataforma implantada en 2018, para compartir datos de entre administraciones y entidades público/privadas.

Proiektua: Espedienteen kudeatzailea.

Espediente korporatiboen kudeatzaile berri bat sortzea, zeharka jardungo duena, B.F.A. osoarentzat. Kudeatzaile hau BAT inguruaren barruan sortutako osagai berrerabilgarri guztiei konektatuta egongo da.

Proyecto: Gestor de Expedientes

Creación de un nuevo gestor de expedientes corporativos y transversal para toda la DFB, conectado a todos los componentes reutilizables y corporativos creados dentro del entorno BAT.

Proiektua: Prozeduren katalogo berria.

Gaur egun tramitazioko kanal guztietan tramitagarriak diren prozedurak deskribatzen dituen katalogoa dago. Herritarrekiko harremanen kudeaketaren (CRM) proiektuari lotuta eta, aldi berean, baita gaur egungo aplikazioak dituen akatsei ere, prozeduren katalogo berri bat garatu nahi da.

Proyecto: Nuevo Catálogo de Procedimientos

En la actualidad existe un catálogo que describe los procedimientos tramitables en los diferentes canales de tramitación. Asociado al proyecto de gestión de relaciones con la ciudadanía (CRM), y también a las carencias funcionales existentes en la actual aplicación, se desea desarrollar un nuevo catálogo de procedimientos.

Proiektua: Prozeduren kudeatzailea.

Prozedura korporatiboen kudeatzaile berriaren eboluzioa, funtzionaltasun berriak emanda. Halaber, horren gainean neurrirako garapenik egin gabe B.F.A.n ezartzea erraztuko duten fluxu sinpleak sortzeko aukera landuko da.

Proyecto: Gestor de Procedimientos

